

Ingurumen Hiztegi Entziklopedikoa

Lurzoru

Arroka ama kanpo-geodinamikaren -klimaren- ondorioz eta bizidunek eragindako prozesu fisiko, kimiko eta biologikoen ondorioz eraldatzen denean sortzen da lurzorua, hau da, materia organiko eta materia ez-organikoen nahastura. Konposizioaren arabera, hiru geruza nagusi bereizi ohi dira lurzoruan (A, B eta C). Kanpokoanari *A horizonte* deritzo, eta materia organiko asko (humus) dauka. Haren azpian, *B horizontea* dago, A horizontetik lixibiazioz materia organikoa jasotzen duena eta A horizontea bezain meteorizatuta ez dagoena. Bi horizonte horiek osatzen dute benetako lurzorua, *solum* izenekoa. Azpian zorupea dago, *C horizontea*, meteorizatzen hasitako arroka amari dagokiona. Lurzoruaren azpian *D horizontea* dago, arroka ama alegia. Zenbaitetan, zoruperik ez dagoenean, arroka amari deritzo *C horizonte*. Lurzoruak horizonteen ezaugarrien eta egituraren arabera sailkatzen dira.

Giza jarduera gehienak (nekazaritza, industria, hiriak...) lurzoruan finkatuta daudenez, munduko lurzoruetako asko giza jarduerak, batez ere nekazaritzak, eraldatuta eta beste asko industria-hondakinez kutsatuta daude